

## OREINAREN MARRAOA, UDAZKENEKO ABARRO TSA

Testua eta argazkiak: Jose Ramon Aihartza

**I**RAILAREN azken astea da Iratik basoan. Pagoen hosto berdeak horitzen hasiak dira, eta lurrean pago-ezkurak ugari ikus daitezke. Udako eguraldi beroen ostean, hodeiek gero eta mai-zago estaltzen dute zerua, eta dagoeneko, euria eta hotza nabarmentzen ari dira inguruko haran eta hegietan. Bapatean, orroe sakon eta ozen batek isiltasuna urratu du ilunabar aldean; berehala beste batek erantzun dio lehenengoari. Minutu gutxitan, eta ezkutuko agindu bati erantzunez edo, sekulako iskanbila sortu da pagadiaren babes ilunaren baitan. Orroe bati besteak darraio, zein baino zein ozenago, zein baino zein ikaragarriago. Oreinaren marraoaldia hasia da.

Oreina Euskal Herrian diren artiodaktilo basatien artean handiena dugu. Animaliaaren pisua 100 eta 200 kg bitartekoa izaten da, gurutzerainoko altuera 100 eta 140 cm bitartekoa izanik. Gainerako artiodaktiloetan bezala, arra emea baino handiagoa izaten da. Ilajea

*Oreinaren fitxa teknikoa eta Euskal Herrian duen banaketa-mapa.*

### FITXA TEKNIKOA

OREINA

<b>ESPEZIEA:</b>	<i>Cervus elaphus</i>
<b>FAMILIA:</b>	ZERBIDOAK
<b>ORDENA:</b>	ARTIODAKTILOAK
<b>KLASEA:</b>	MAMALIOAK

### BANAKETA-MAPA



*Oreina marrao egiten.*

normalean arrea izaten duten arren, aldakorra da urtean zehar. Uda aldera ia gorriak baldin badira, neguan itxura grisagoa ageri dute, beti ere atze aldea -izter gainak-beltzaranak izaten dituztelarik.

# Euskal Herriko Fauna



**100 eta 200 kg bitartekoa izaten da oreinaren pisua, gurutzerainoko altuera 100 eta 140 cm bitartekoa izanik. Arra emea baino handiagoa izaten da.**



Bestalde, eta orkatzetan gertatzen den legez, ipurtaldea zuriska dute. Atze aldeko orbain zuri honek defentsa-funtzioa du oreinaren gisako animalia taldezaleengan. Izan ere arriskurik somatuz gero taldeko partaideren bat korrika ihesi hasten bada, gainerako taldekideek berehala ikus dezakete orbain zuria gora eta behera saltoka, arriskuaz ohartuz.

Oreinaren anatomian deigarrien gertatzen den ezaugarria, arrek buru gainean daramaten adarrezko koroa bikaina da zalantzarik gabe. Adar hauek hezurrezko egitura sendo eta adarkatuak dira, eta animaliek araldiko borroketan erabiltzen dituzte arma beldurgarri gisa. Hala ere, eta adarren forma bereziari es-

ker, arma hauek erabilia ez da normalean zauri larriegirik sortzen borroka horietan; adar-muturrak zir-kulu handi bat eratuz antolatuta bait daude, eta ondorioz, elkarren adarrak trabatu egiten bait dira borroketan, hauek gehienetan indar-saio hutsak izaten direlarik.

Adar hauek urtero berritzea zerbidoen taldeko ezaugarria da. Otsailetik maiatza bitartean, eta arraren soinean gertaturiko aldaketa hormonalaren eraginez, adarrak, oinarria lehortuta, erori egiten zaizkie. Berehala, eta ehun egunez, arren adar berriak garatu egiten dira. Nabaria da ordea, adar berriak sortzeak animalia-eginahal metaboliko garrantzitsua eskatzen diola. Gainera, egitura hauek sortzeko lehengaiak -kaltzioa eta fosfatoak batez ere- eskuratu behar ditu, eta horretarako eroritako adarrak jan egiten ditu, aldi berean hezurretan pilatutako erreserbagaiak erabiltzen dituelarik.



Ondorioz, adarren tamaina, eta adar-muturren kopurua, animalia-aren adinaren, eta batez ere sasoiaren arabera gertatzen da: lehen urteko oreinek mutur bakarreko adarrak garatzen dituzte; bigarren urtekoek berriz, eta elikadura- edo osasun-arazorik ez badute behintzat, hiruna muturreko bi adar garatuko dituzte; azkenik, orein helduak 24 mutur izatera ere hel daitezke.

Adar berriak balusaren antzeko larruaz estalitako egitura bas-kularizatuak eta nerbioz hornituak izaki, luzakin sentikor "biziak" dira. Uztail edo abuztuan ordea, egitura hauek erabat garatuta daudenean, animaliak zuhaitz-adar eta enboreen aurka igurtzika hasten dira, adarrak larrutuz eta barneko hezur odoldu eta minbera erakutsiz. Lan honen lekuko, oreinak bizi diren oihanetan erabat urratuta daude enbor, zuhamuska eta zuhaitz gazteak, seinale hauek animalia-aren presentziaren adierazgarriak garbienak izanik. Irailerako berriz, eta araldia hasi baino lehen, oreinen adarrak egitura gogor eta zorrotzak dira berriro ere; emeengatik borrokan erabili beharko dituzten arma beldurgarriak alegia.

Bizimoduari dagokionez, oreinak ugaztun taldezaleak dira, eta aralditik at, eme eta gazteak beren taldetan, eta ar helduak beraienetan bizi dira. Bestalde, oreinek egunezko iharduera dute;

**Atze aldeko orbain zuriak defentsa-funtzioa du oreinaren gisako animalia taldezaleengan.**

# Euskal Herriko Fauna



*Otsailetik maiatza bitartean, eta arraren soinean gertaturiko aldaketa hormonalaren eraginez, adarrak, oinarria lehortuta, erori egiten zaizkie.*

egunsentian eta ilunabarrean bazkatzen dira gehienbat, eta eguerdia leku babesturen batean etzanda igarotzen dute, lasai asko. Elikadura aldetik, oreinak fitofago hertsia dira, eta batez ere belarjaleak. Zelulosa hobeki liseritu ahal izateko, ganbaratan banatutako urdail handia dute, eta berau belarrez bete ondoren denbora luzea ematen dute jakia hausnartzen, eguerdiko egonaldi luzeak lan honetan igarotzen dituztelarik. Belarra nahiago duten arren, udaberrian zuhaitz eta zuhamusken kimuak, eta neguan zuhaitzen azala eta adar-muturrak ere jaten dituzte. Udaren bukaeran eta udazkenean berriz, ezkurak, pago-ezkurak eta gaztainak izaten dira beren dietaren osagai nagusiak. Izan ere sasoi honetan animaliak negua pasatzeko beharko dituen gantzak eta gainerako erreserbagaiak metatu behar bait ditu.

Lehentxeago aipatu denez, oreinaren ugalketa iraila eta urria bi-

tartean araldiarekin hasten da. Sasoi horretan, ar- eta eme-taldeek oihanaren babes utzi, eta oihan-inguruko larreetan biltzen dira, bertara hurbiltzen diren naturzaleei ikuskizun bikaina eskainiz. Arren marroa sakon eta indartsuak hunkigarriak dira benetan, eta beren bitartez sasoiak dauden oreinek erronka botatzen diote elkarri emetalden jabea zein den erabaki asmoz. Erritual honetan ugaltzeko ahalmena duten ar guztiek hartzen dute parte, baina hala ere sendoenak -adar bikainenak dituztenak- izaten dira nagusi bertan, gainerakoak, gazteak edo ahulak direnak, gehienetan egote hutsarekin konformatu behar dutelarik. Ar nagusiak emeak bilduta izateaz arduratzen dira, eta ar gazteren bat hauengana hurbiltzera ausartzen bada, berehala uxatzen dute. Bestalde, benetako borrokak sasoi beretsuko orein nagusien artean bukaturik gertatzen dira, horrela arrekiko hautespen

sexual zorrotza ezartzen delarik. Beraz, ale bikainenek soilik emango dizkiete geneak hurrengo belaunaldikoei. Dena dela, gerta daiteke bi ar nagusi borrokan ari direnean, momentuaz baliatuz ar gazteren batek ausardia izan eta emerren bat estaltzea. Horrela, ar nagusien arteko borrokek ezarritako hautespenari zorizko faktore bat gehitzen zaio, taldearen bilakaera genetikoari begira.

Kumea (normalean bakarria izaten bait da eme bakoitzeko), maiatz edo ekainean jaiotzen da. Unea iristen denean, emea, taldea utzi eta oihanean bakarrik ezkututzen da, umeaz erditzera. Erditzea bestalde, oso azkarra izaten da, 10 minutu ingurukoa, eta orbaintxo zuriz pintarratutako kume jaioberria berehala zutitzen da. Goitik behera mihizkatu, garbitu eta usainak kendu ondoren, eta titia emanez gero, amak sasi edo belar-artean ezkututzen du, eta tarteka baino ez zaio hurbilduko titia eman eta garbitzera, etsai harrapariren batek atzeman ez dezan. Gaztetxoak 3 edo 4 hilabete ditueneko jadanik belarra eta beste elikagai solidoak jaten hasten da, baina oraindik ere urtebetez amarekin geratzen da taldera bildu aurretik.

Oreinaren habitata asko aldatu da azken milurtekoetan, batez ere



*Adar berriak balusaren antzeko larruaz estalitako egitura baskularizatuak eta nerbioz hornituak izaki, luzakin sentikor biziak dira.*

# Euskal Herriko Fauna

gizakiaren iharduera dela eta. Oreina beti ere oihanarekin erlazio-naturiko animalia izan denik ezin uka badaiteke ere, eta arren adardura bikainak adierazten duenez, oihan itxiak ez bide dira animalia honen bizileku naturala; halako elementu bikainak ez bait lirateke aproposenak sastrakadi itxietan eroso mugitu ahal izateko. Bestalde, animalia belarjale izateak ere ideia bera indartzen du. Izan ere ez bait dira oihan itxiak belarra aurkitzeko lekurik aproposenak. Gizakiak ingurunea hain modu eraginkorrean aldatu aurretik beraz, oreinak normalean basoa eta larreak batera agertzen ziren lekuetan bizi bide ziren: oihan-ertzetan, ibai-bazterretan, zohikaztegien inguruetan, baso gaineko larre edo txilardietan, etab.etan. Geroago, gizakia oihanak botatzen eta larreak sortzen hasi zenean, oreinaren habitata ikaragarri zabaldu zen, animalia izugarri hedatuz. Azken mendeko aldaketen ondorioz ordea, ingurune apropos gehienetan gertatutako humanizazioak batetik eta ehizaren presioak bestetik, oreinen atzerakada ikaragarria eragin dute Euro-

**Belarra nahiago duten arren, udaberrian zuhaitz eta zuhamusken kimuak, eta neguan zuhaitzen azala eta adar-muturrak ere jaten dituzte.**

pa osoan, eta egun ehiza-kotoetan eta babestutako lekuetan baino ez da bizi ia, beti ere gizakiaren gestiopean.

Euskal Herrian oreina aspaldi desagertu zen, batez ere ehizaren presio handiegiaren ondorioz. Hala ere, 1950.eko hamarkadan sartzen hasi ziren Nafarroa eta Arabako mendietan, hauen helburua batez ere zinegetikoa izanik. 1957.ean I.CO.N.A.k hainbat orein bota zituen Gorbeia inguruan, eta ondoren zenbait partikularrek ere gehiago bota zituzten. Era berean, Foru-Diputazioak eta Estatuko Baso-Ordasunen erakundeak oreinak sartu zituzten Nafarroako zenbait herritan: 11 ale Bertzen 1956.ean; 18 Lantzen 1957.ean; eta 26 ale guztira Eugi inguruan 1955-56 eta 57.ean. Edonola ere, orein hauek zenbait eragozpen gainditu behar izan zituzten populazio egonkor



samarra osatu aurretik. Batetik, botatako aleak Andaluziatik ekarriak ziren, eta ondorioz, bertako klimara egokitzeo zailtasun handiak zeuzkaten, eta bestetik isilpeko ehiztarien hozkadak ere pairatu behar izan zituzten.

Nola nahi ere, oreinak askatze guzti hauen ondorioa Euskal Herrian bi populazio zabal egokitzea izan da: bata Gorbeia magaletan kokaturik daukagu, eta bertako orein-kopurua 500 ale ingurukoa izan daitekeela plazaratu da; bestea berriz Nafarroako mendietan bizi da, Belateko mendietan hasi eta Izabaraino doan eremuan, eta 800 ale inguruz osotuta dagoke. Dena dela, eta kopuruei begira populazio hauek garrantzitsutzat jo badaitezke ere, beren izaera erabat artifiziala da, eta ez dago hain garbi (alderdi koalitatibotik behintzat) beren egoera zein den. Nolabait esatekotan, ehiztariak zer harrapatua izan dezaten sortutako "aziendak" dira, eta ez ekosistema orekatuan egonkor integratutako populazioak. Alde honetatik, taldeen baitako odolkidetasun-maila, egitura demografikoa, animalien batezbesteko tamaina eta osasun-maila, etab. kontutan hartu beharreko ezaugarriak dira, baldin eta aurrera begira Euskal Herrian oreinaren iraunkortasuna eta erabateko egokitzea lortu nahi baditugu.

€



**Arren marroa sakon eta indartsuak hunkigarriak dira benetan, eta beren bitartez sasoian dauden oreinek erronka botatzen diote elkarri eme-taldeen jabe zein den erabaki asmoz.**